

Ezkio-Itsaso. Igartubeiti baserri museoa. "Gaztetxoak, gustura, Igartubeitiko ' Baserria eta bere ingurunea ' tailerrean"

Atzo arratsaldeko 16:30ean Baserria eta bere ingurunea tailerra aurrera eramane zen Igartubeiti Baserri Museoan. Honetan herriko eta inguruko hiru gaztetxok parte hartu zuten, ekintzari esker ondo pasa eta gauza ugari ikasteko aukera izan zutelarik. Maketa handi batean, non gure ingurua irudikatzen zen, (ibaia, mendiak, arana...) etxe eta industri desberdinak topatu zituzten gazteek hasieran. Orduan, Euskal Herriko antzinako paisai bat egin behar zutela esan zien hezitzaileak gazteei. Horrela, txaletak, lantegiak, pinuak, etxebizitza altuak... maketatik kendu zituzten.

Marraski batez lagundurik antzinako paisaia osatu behar izan zuten maketan bertan. Bi herrixka kokatu, etxola talde batzuk, etxe-dorre bat, zubia,... eta zuhaitzen artean pagoak kokatu zituzten, besteak beste. Ekintza aurrera zihoan bitartean hezitzaileak maketan sortutako herriaren eta gaur egungo herrien diferentziak azaltzen zizkien, aldi berean, hauek zituzten galderak erantzunek: zergatik zubi bakarra eta etxe handiaren ondoan?, zergatik lehen pinurik ez zeuden?...

Arratsalde ederra pasatu zuten hiru gazteek Igartubeitiko interpretazio zentruan, eta jolasteaz gain baserria eta bere inguruneako datu desberdinak ezagutzeko aukera ere izan zuten.

Herri kirolak

Datorren larunbatean Herri kirolak izenburudun tailerra ospatu behar zen Igartubeitiko Interpretazio zentroan, baina egun horretan Ezkioko jaiak direnez, ekintza desberdinak daude auzoan bertan. Beraz, ekintza hau beharbada bertan behera geldituko da hurrengo bat arte.

M. GALILEA